

AuzoEkin Tolosa (2025)

5 Eremua: San Esteban



Lekua:

Auzoko elkartea

Data:

2025eko urriaren 15a, asteazkena. 18:00-20:00

Parte hartzaileak:

- **Auzokideak:** 8 pertsona
 - 4 emakume
 - 4 gizon
- **Udal teknikariak:** Garikoitz Lekuona, Gobernantza saileko teknikaria eta Lide Olalde soziologo eta berdintasun eta partaidetzan espezializatua.
- **Dinamizazio taldea:** Garoa Gartzandia eta Maria Alonso del Val (Aise kooperatiba)

Sarrera:

AuzoEkin Tolosako Udalak sustatutako udal-estrategia bat da, auzoen garapen integrala eta orekatua bultzatu nahi duena, herritarren parte-hartze prozesu egituratu, inklusibo eta kolaboratzaile baten bidez. Proiektuak aldaketa metodologiko esanguratsua planteatzen du tokiko gobernantzan, Auzoetako Mahaia pixkanaka eredu zabalago eta sistematikoago batez ordezkatzuz, gogoeta kolektiboa, diagnostiko partekatua eta eremuen araberrako estrategien formulazioa bultzatuko dituen.

Prozesua lau fase nagusietan egituratuta dago: diseinu parte-hartzailea (0 fasea), beharren diagnostikoa (1 fasea), formulazio estrategikoa (2 fasea) eta inplementazioa eta jarraipena (3 fasea). Fase horietan, lurralde analisirako tresnak eta parte hartzeko metodologiak uztartzen dira, eta herritarrak nahiz udalerriko eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalak inplikatzeko dira.

Herritarren parte-hartzera irekia den saio hau 2. fasearen barruan kokatzen da, elkarrekin plangintza estrategikoaren formulazioa egiteko bidean. Planifikazio horrek datozen 5 urteetan zonalderako udal-politikak bideratzen lagunduko du.

Helburua:

Herritarrei diagnosi parte-hartzailearen emaitza nagusiak ezagutzera ematea eta hausnarketarako eta proposamenetarako gune kolektibo bat irekitzea, eremuaren garapen-estrategiaren parte izan daitezkeen erronkak, ideiak eta ekintzak jasoz.

Saioaren garapena:

Garikoitz Lekuona, udal gobernanta teknikariak hasiera eman zion saioari, dinamizazio taldea aurkeztuz eta prozesua, fasea eta helburuak kokatuz. Jarraian, Osoigok eta Ikertaldekin eremuan egindako diagnostikoaren emaitza nagusiak azaldu zituen, eta elkarriketarako tarte zabala eman, zalantza eta galderak argitzeko.

Saioa gertutasun giroan hasi zen elkarteetan. Pare bat pertsona pixka bat beranduago iritxi ziren eta elkarteetan geundenez, beste bizilagunen mugimendua ere somatu zen. Bi pertsona saio zehar agertu ziren ustez plan urbanistikoaren bilerara zetozen eta argitu zitzaizkien egun horretan Auzoekin prozesuaren baitan zebiltzala bizilaguna lanean, beraz alde egin zuten. Izan ere beraiek ez dira auzoko bizilagunak baina bai lokal baten jabeak.

Lehenengo urterako udalak jarritako aurrekontua urria dela diote auzotarrek, Udal teknikarien aldetik azaldu zen berriz ere aurrekontu horretan ekintza batzuk bideratuko direla, plana 5 urteetara egin nahi dela eta urtero eskeinek dela aurrekontu zuzena auzoarentzat. Bestetik Udalaren beste aurrekontuetan interbentzio handiagoak ere sartu edo kontenplatu daitezkeela auzoarentzat.

Saioaren bukaeran gogora arazi zitzaizkien erabaki.tolosa.eus plataforma dutela edozein proposamen berri aurkeztu ahal izateko. Saio honetan kanpo jatorriko emakume batek eskatu zuen kartelak eta deialdiak Ukrainar eta Arabiar hizkuntzan ea jar ote daitezkeen horrela bizilagun gehiago deituak sentituko direlakoan daude, izan ere, San Esteban auzoren bizilagun asko kanpo jatorrikoak dira. Etxeen jabeak ez izateagatik, pertsona batzuk ez dira deituak sentitzen. Honegatik ere garrantzitsua ikusten da "bizilagunei" deialdia egiten zaiela adieraztea.

Saio honetan jende kopurua ikusirik dinamika parte-hartzailea sinplifikatzea erabaki zuten errazleek. Agenda urbanoaren markoa motzean azaldu zitzaizkien parte-hartzaileei eta bi talde osaturik errazleek elkarriketak dinamizatu eta hainbat proposamen jaso ziren. Ondoren errazleek proposamen horiek Agenda Urbanoaren kutxetan antolatu dituzte eta honako dokumentuan jaso dira.

Saioaren amaieran, parte-hartzea eskertu zen, saioan zehar izandako sententziak labur partekatzeko gonbitarekin batera. Parte-hartzaileei ere agurra eman zitzaizkien, elkarriketekin jarraitzea eta erabaki plataformaren bidez proposamenak ekartzen jarraitzea animatuz.

Emaitzak:

- Parte hartzera etorritako bizilagunek diagnosiaren erresumena jaso dute
- 34 proposamen berri jaso dira saio honetan

Proposamenak

AE1. LURRALDEA, PAISAIA ETA BIOANIZTASUNA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE1.1		
AE1.2		
AE1.3		

AE2. HIRI-EREDUA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE2.1	Aparkalekuak txukundu	3. saioan jasota
AE2.2	Autokarabanen parkina txukundu	3. saioan jasota
AE2.3	Feriala txukundu	3. saioan jasota
AE2.4	Murala parkean	3. saioan jasota
AE2.5	Zirkoa dagoen tokian parke zabala, berdea eta oinezko bide batez auzoaren beste zatiarekin konektatzea	3. saioan jasota
AE2.6	Hiri plangintza armonikoa, etxeak oraingoarekin sintonia izan dezatela	3. saioan jasota
AE2.7	Oinarrizko garbitasuna eta mantenimendua falta dugu (urgentea)	3. saioan jasota
AE2.8	Ferialeko kristalak erortzen dira (urgentea)	3. saioan jasota
AE2.9	Auzoko "tenderetea" itxi, parkeko hurrek sokak ikutzen dituzte	3. saioan jasota
AE2.10	Enpresa hutsak udalak erosi ditzala, expropiatu	3. saioan jasota
AE2.11	Komunak jarri Elosegin eta parkean haurrentzat eta zaintzaileentzat	3. saioan jasota

AE3. ALDAKETA KLIMATIKOA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE3.1	Estalpeak euripean egoteko	3. saioan jasota
AE3.2	Banku eta estalpeak jarri	3. saioan jasota
AE3.3	Berdegune gehiago	3. saioan jasota

AE4. BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE4.1		
AE4.2		
AE4.3		

AE5. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE5.1	Bide historikoak berreskuratu, auzotik zirkora, bidegorri, argiak, erreka garbitu, bide ederra izan daiteke	3. saioan jasota
AE5.2	Espaloi estua dugu Ferialean, iluntzean ez da betere atsegina, argi gehiago eta insegurua da eraikinaren egoerarengatik. Hau hobetu	3. saioan jasota
AE5.3	Ferial kalea peatonala bihurtzea edo peatoiek preferentzia askoz handiagoa izatea	3. saioan jasota
AE5.4	Autobus geltokia, auzoan ez dago autobus zerbitzurik	3. saioan jasota

AE6. GIZARTE-KOHESIOA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE6.1	Ukraniar komunitatearekin topaketak sortu kohesio soziala lantzeko	3. saioan jasota
AE6.2	Auzoko harreman interkulturalak landu	3. saioan jasota
AE6.3	Murala margotu auzoko partehartzearekin 7.zenbakiko fatxadan, Elozegi parkeko sarreran. Animalia, natura...	3. saioan jasota
AE6.4	Auzoan bilera deialdi eta informazioa arabiar eta ukrainiar hizkuntzatan ere jarri.	3. saioan jasota
AE6.5P	Deialdi eta kartelak jarri ahal izateko panel informatiboak	3. saioan jasota
AE6.6	Noizean behin bilera eta ekintza ezberdinak egin jatorri ezberdineko auzokideak elkartzeko.	3. saioan jasota
AE6.7	Banderez gain, jatorri edo nazionalitate ezberdinetako kolore edota sinboloak ezagutu, hauekin auzoan zerbait egin ahal izateko	3. saioan jasota
AE6.8	Auzoko festetan ekintza interkulturalak jarri.	3. saioan jasota
AE6.9	Ekintza interkulturalak. (antzerki, sormen tailerrak)	3. saioan jasota
AE6.10	Bizilagunen elkartean nazionalitate edota jatorri ezberdinetako pertsonak egotea bilatu auzoko festak prestatzeko.	3. saioan jasota
AE6.11	Deialdiak daudenean zehaztu bizilagunentzat dela eta ez etxeen jabeentzat bakarrik.	3. saioan jasota
AE6.12	Jatorri ezberdinetako pertsonak bere lurraldeko gauzak erakusteko festa edo topaketa: janari, dantzak, arropak, ohiturak...	3. saioan jasota

AE6.13	Haurrentzat ekintza eta jarduerak	3. saioan jasota
AE6.14	Auzoaren “argazki” bat erakutsi irudikatu. Diagnosiaren sintesia, irudi, grafiko eta argazkiekin.	3. saioan jasota

AE7. EKOIZPEN EREDUAK ETA HIRI-EKONOMIA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE7.1		
AE7.2		

AE8. ETXEBIZITZA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE8.1	Etxebizitza berriek armonia izan dezatela auzoan dagoenarekin	3. saioan jasota
AE8.2	Etxebizitza proiektua itxoiten, bitartean ilegalki bizi diren pertsonak, arazoak, inseguritatea. Honekin zerbait egin.	3. saioan jasota

AE9. TRANTSIZIO DIGITALA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea

AE10. TRESNAK, GOBERNANTZA ETA KALITATE DEMOKRATIKOA

Zkia.	Proposamena	Trazabilitatea
AE10.1	Udal teknikarien presentzia fisikoa auzoan. Harreman presentzialak laguntzen du. Hau nolabait mantendu.	3. saioan jasota
AE10.2	Egiten dugun plana mantendu, nahiz eta udala aldatu, auzoekin egindako lanak mantendu.	3. saioan jasota
AE10.3	Udalarekin komunikatzeko tramiteak sinplifikatu.	3. saioan jasota
AE10.4	Emaitzak ikusi nahi ditugu, planek jarraikortasuna izan dezatela	3. saioan jasota
AE10.5	Elkarteko presidenteaz gain beste pertsonak ere udalarekin komunikatu ahal izatea. (representante legalak, erraztasunak)	3. saioan jasota